

«Errefuxiatuen auziari gizatasunez heldu dio euskal gizarteak, sentsibilizazioa handia den seinale»

kan jasotako erlijio borroken tankerako gertakizunek dezente area-gotzen dute errefuxiatuen etorrera. Inoiz, 500 bat errefuxiatu hartu ditugu urte bakar batean. Salbuespenetatik haratago, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara 100 lagun inguru ailegatzea da ohikoena.

■ **Errefuxiatuen zaintzan jarduten duten elkarteak Gurutze Gorria eta CEAR-Euskadi direla esan duzu...**

Euren egitekoa da errefuxiatuen osasuna —fisikoa zein psikikoa— segurtatzea; bizirauteko laguntza ekonomikoa, hizkuntza irakaspenak eta ostatu zerbitzua eskain-

«Gure helburua da errefuxiatuek asilo baimena lortzeko bidean Espainian oztopo den legeria gaitzitzen laguntzea»

tzen dizkiete. Gure helburua da lagunok asilo baimena lortzeko Espainian oztopo den legeria gaitzitzen laguntzea. Asilo eskaera onartu ondoren ere, elkarteak baditu bere ardurak: hezkuntza programetan jarduteko, etxebizitza alokatzeko edo beharrezko hasteko aholkularitza lana egitea.

■ **Errefuxiatuen egoera legeztatzea ez da lorpen makala...**

Gaitz-gaitza izan ere. Espainian errefuxiatuen %5ek lortzen dute asilo baimena; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %1,5ek. Oztopo dira, besteren artean, elkar ulertze arazoak, jatorrizko herrialdean jasaten duten jazarpenaren zantzuak epailearen aurrean egiaztatze zailtasunak, eta errefuxiatuen nortasuna argitzeko trabak.

■ **Euskal gizarteak begi onez daku-sa errefuxiatuen etorrera?**

Etorkinen auziari gizatasunez heldu diote euskal herritarrek. Euskal erakundeek ere —bai gobernu kanpokoak bai agintean dihardutenak— sentsibilizazio kanpaina entzutetsuak abiarazi dituzte, errefuxiatuen afera tentuz eta neurritzat hartu gura duten seinale. Gizabanakoon legeria, baina, Madrilen diseinatu dute; Euskal Herriak ez du inolako eskuduntzarik, eta horrek errefuxiatuen aldeko beharri enbarazu egiten dio. Euskal erakundeek hainbatetan galdegin diote Madrildgo gobernuari etorkinen giza eskubideen errespetua ziurtatzea.

Giza eskubideen Institutua

Deustuko Unibertsitatearen menekoa da Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Ibilbide laburreko elkarte da, 1997an sortu zuten. Irabazi asmorik gabeko erakundearen abiaburu estrategikoak dira: ardura etikoa, diziplina aniztasuna, gizarte-integrazioa eta nazioarteko ika-miken azterketa. Institutuaren helburuak, berriz, honako hauek: giza eskubideen ezagutza zabaltzea; unibertsitatea abiapuntu, gizaritari zerbitzu egitea; euskal gizarteak dituen errorei begira arduratsu jokatzeko, euskal hizkuntza eta kultura sustatuz eta gatazka politikoaren irtenbide baketsuaren mesedetan behar eginez; eta gizabanako ongi heziak eta kritikoak sortzea, nork bere arlo akademikoa oinarri, nazioartean giza eskubideen eta justizia sozialaren alde jarduteko.

Pedro Arrupe Institutuak ikerketa proiektu mordoak sortu du. Besteak beste, Espainian lege kanpoko etorkinek pairatutako egoera, Afrikako Aintzira handietako gatazka armatuak eta milurteko berriko giza laguntzaren errorei aztertzeke ekimenak atondu dituzte. Errefuxiatuak, noski, Institutuaren jardueraren zutari dira, giza eskubideen aldeko borroka ardatz izaki.

de gehienek generoa talde sozialaren baitako ezaugarri bihurtu eta gizabanakoon giza eskubideak ziurtatzeko lege-gidak kaleratu dituztela. Aitzitik, gomendio bildumek epaitegietan lege mailarik lortu ez dutela gaitzetsi du. «Epaileren batek iradokizunoi entzungor egiten badie, asiloa eskatu duen andrazkoa herrialdetik kanporatzeko aukera handiak dira».

Musaloren irudiko, «Justizia soziala gorpuzten duten irizpideek aldakorak behar lukete, unean uneko egoeretara moldatzeko modukoak». Helburua,

«kalte gehien jasaten duten gizataldeentzat mesede diren jardunbideak gailentzea».

«Emakume errefuxiatu askoren egoera laugarria» apaltzeko eta, orobat, etorkinon auzia behin betiko konpontzen dela ziurtatzeko, erabaki politikoak eta gizartearen beraren mobilizazio kanpainak ezinbestekoak direla adierazi du ekintzaile estatubatuarrek.

Hitzaldia bukatzeko, zera nabarmendu du Musalok: «Emakume errefuxiatuen eskubideak gizabanako ororen eskubideak dira». Hala izan bedi!

EHU

Bihotzeko prentsaren nondik norakoak aztertuko dituzte kazetari, aditu eta unibertsitarioek Leioan

Erredakzioa/Leioa • Bihotzeko prentsaren gainean berbetan ari-zeko jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Sailak. Ostirala arte, kazetari, aditu eta unibertsitate irakasle mordoak batuko da Leioako campusera. Jorratuko dituzten gaien artean daude gizabanakoen intimitate-eskubidea, eta prentsa arrosa eta horiaren arteko nahasketa.

Arrosatik horira goiburua duten jardunaldiotan parte hartuko dute, besteak beste: Tamara artista santurtziarra, Rosa Villacastin kazetariak, Financial Times agerkariko zuzendari Jimmy Burnsek eta Arantza Furundarena esatariak. EHUko irakasleek egingo dute moderatzaile beharra. Jardunaldiotan entzule gisa jarduteko sarrera doakoa da.

NUP

Ikasgelategi eta gune teknologiko berriak hartuko dituen eraikina sortuko dute Iruñeko campusean



MIKEL SAIZ

Erredakzioa/Iruñea • Nafarroako Unibertsitate Publikoak 1.800 milioi pezetako aurrekontua baliatuko du ikastegiaren leku falta asebetetzeko. Hezkuntza aukera berriek galdatutako ikasgelategiak eta teknologia aurreratuen helduleku izango diren guneak eraikiko dituzte Iruñeko campusean. XXI. gizaldian ohiko bihurtu diren esperientzia gelek, programa diziplina anitzek eta, orobat, ikastaro berri mordoek eragin dute ikastegi berria eraikitzeke premia. Sadar erreka ondoko lurretan egingo dute ikasgelategia, gaurko eraikin nagusiaren alboan.

NUPEko Gobernu Batzarrak iragan astean adostu zen hirigintza egitasmoa garatzeko proiektuan. Eraikuntza beharrek abiarazteko, baina, Batzorde Sozialaren oniritzia ezinbestekoa da. NUPEko agintariak uste dute datozen asteetan jasoko dutela baimena. 2004 urte arteko aurrekontuak baliatuko ditu NUPEk ikasgelategia eregitzeko.

EHU

Gazte eta adingabe zigortuen inguruan hausnarketa egingo dute Gasteizen antolatu jardunaldietan

Erredakzioa/Gasteiz • Gazte eta adingabe zigortuak: erantzun sozial, judizial eta akademikoak izeneko jardunaldiak egingo dituzte hilaren 22tik 23a arte Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko campuseko Gizarte lana eskolan. Bi egunez, zuzenbide penala eta lan ekintza soziala, gazte eta adingabe zigortuekin lotzen dituen kontuak jorratuko dituzte.

Komunikazio, txosten eta bestelako materiala prestatu duten adituek jardungo dute Gasteizen. Halaber, Gizarte laneko ikasketak egiten diren ikastegira batuko dira Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Justizia sailtako hainbat kide. EHUko ikasleek 3.000 pezeta ordaindu beharko dituzte jardunaldietara joateko.

Euskal Herria ez omen dago errefuxiatuen jomugan...

errefuxiatuak ez da inguruko herrialdeetako etorkin kopuru handiagoa hara dihardutela. Egia da, halaber, errefuxiatu gehienak nahiko errefuxiatu helduak direla, horien babeserako neurriak onartzeko.

Zehazki, zenbat erbestera heldu da gurea urterik urte?

errefuxiatuak guda eta gatazken ondorioz etortzen direnak dira. Sobietar Batasunaren zatiketa, Balkanetako gerra edo Afri-



Karen Musalo

«Drain gutxi arte, errefuxiatuak ez da inguruko herrialdeetako etorkin kopuru handiagoa hara dihardutela. Egia da, halaber, errefuxiatu gehienak nahiko errefuxiatu helduak direla, horien babeserako neurriak onartzeko.

errefuxiatuak guda eta gatazken ondorioz etortzen direnak dira. Sobietar Batasunaren zatiketa, Balkanetako gerra edo Afri-